

Antza, Pio IX. Aita Santuari, berak Gernikako Batzarlekuko Foru Eleizeari egindako mesede eta emondako graziakaitik, eskerrona erakutsi gurean, mezua eldu eragin gura izan eutsoen Bizkaiko Batzar Nagusietako kideak. Orretarako mozinoa aurkeztu eben 1864. urteko garagarriaren 24an, eta urrengo egunean, Gernikan bertan batzartuta, onartu egin eben. Aita Santuari eskerrak emoteko mezua eroateko, orretarako beren-beregi, aukuratutako mezularia bialdu bear ebela be onartu eben. Alan bada, Antonio Maria Murua jauna aukeratu eben zeregin orretarako. Gizon arek gogotsu onartu eban eskabidea, baina beraren osasun makala zala-eta, bein eta barrian atzeratu bear izan eban Erromarako joan-etorria. Azkenean, 1866ko bagilaren 23an, eguerdiko 12.30etan bete eban aspaldian agindutakoa. Aita Santuak, ordainean, bedeinkatu ebazan Bizkaiko Foru Aldundia, aren ordezkariak eta bizkaitar guztiak. Urte beratako garagarriaren 12an, Erromatik etxera etorrita, bertan jazotako guztiaren ganean jakitun imini ebazan Foru Batzarretako kideak aitatutako Murua jaun arek.

Sasoi atan, Espainia aldean, euskal lege zaarren aurka-ko giroa bizi-bizi egoan. Sánchez Silva espainiar senatari

jaunak foruen aurkako erruki bako berbaldia egin eban 1864. urteko bagilaren 13, 14 eta 15ean. Areri erantzunez, Pedro Egaña Euskalerriko senatari arabarrak ile beratako 15, 16 eta 17an berbaldi sutsu eta luzea egin eban euskal foruen alde Espainiako senatuan. Baita Francisco Barro-eta Aldamar senatari gipuzkoarrak be, beraren aldetik, berea egin eban sutsu eta gogor.

Aita Santuari bialdutako mezu atan, bertan alan irakurri leiteken lez, berak Foru Eleizeari graziak emotegaitik eskerrona erakusteko baino, mezuan foruen aldeko apologia eginda, geiago emoten dau foruen arerioakandiko babesaren bila joan zirala Erromara, mezulari eta guzti bialduta.

Bide batez, esan daigun, Pio IX Aita Santuak ekonomian oinarritutako liberalismo, sozialismo eta modernismoaren aurka eukan eritxia argi lotu zala 1864. urteko abenduaren 8an agiriko egin ebazan “Quanta cura” entziklikan eta “Syllabus errorum” dalako katalogoan.

Guk aurkitutako testu ori dakarren agiriak 1865eko zemendiaren 10 eguna dau agiriko, testua onartu eta urte bete garrenekoa, atan be. Aor, bada, testua:

AITA GUZTIZ SANTUA:

“Batuta gagozala gueure foru usadijo eta ecandu onac irudituten dituzan arecharen azpian, jaquin dogu esquer on, eta pozezco negar malcuacaz, celaco gracijac eguin deutzazuzan, gure asaba onac arech onen guerizpian Jaungoicuaren amaren onzari (?) jaso eben elessa oni, escatuteco bertan cerubari, emon daguigula emen batuten garianoi biar dogun fedeco eta jaquiturijaco espirituba.

Egun guztijetan, gueure lanac asitera guazanian gueure erri onraduaren oneraco, auzpaztuten garianian Ama Doncella garbi Vizcaico Patroniaren altariaren aurrian, urteten dabe gure Vijotzetatic, eta eguiten ditugu gueure ezipanacaz escari oneec.

Erregutu eguizu ó Marija, Pedoren ondorengo naibaguez inguratua daganagaitic! Gorde egizuz euscaldunen foruac, bada eurac guri quenduteco alegiñac gustijac eguiten ditube iracatsi guzurrezco ta gaistaquerijac! Estaldu eguizu ceure mantuagaz gure Erreguiña eta Andria, ain dan fediar ta zucentasunari gure errija iraun eraguiten deutzana.

Jaungoicuaren Amac lagunduten deuscu! Artuten dozunian, ó Aita guztiz Santua, gure vijotzen barru barrutic aguertuten dogun ta bialduten deutzugun gueure zuguac eraspen ta gurarijen barri ta albistia, arren zuc bere lagundu eguiguzu Virgina Marijac lagunduten deuscun leguez, bialduten deutzazula zure benedeziño santuba gure foru maiteen arechari, eta bere guerizpian baturic dagan errijari.

Guernicaco arecharen azpian, Garagarriaren ogueta irugarren egunian, milla zortzireun eta irurogueta laugarren urtian.”

(Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegia: J-01349/001 - Carpeta General de Culto y Clero. Bienio 1862-1864.)

Iñaki Prieto